

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

960

15/2022 EBAZPENA, otsailaren 9koa, Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Saioa Domingo Echaburu andrea izendatzen den Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko Farmaziako Atal Sanitarioko buru, aldi baterako, lau urte luzagarri.

Debagoieneko ESiko zuzendari-gerentearen maiatzaren 3ko 150/2021 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Debagoieneko ESiko Farmaziako Atal Sanitarioko Burua lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez. (2021eko uztailaren 7ko EHAA 133. zk. eta 2021eko uztailaren 16ko BOE 169. zk.).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Saioa Domingo Echaburu andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendatzea Osakidetzako Debagoieneko ESiko Farmaziako Atal Sanitarioko Buru.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28.artikuluaren hirugarren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Saioa Domingo Echaburu andrea Osakidetzako Debagoieneko ESiko Farmaziako Atal Sanitarioko Buru izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikuluan hirugarren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta egun honetatik aurrera izango ditu ondorioak: 2022ko otsailaren 4a.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ezpada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen dela eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikuluan ezarritakoarekin bat etorri.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldeztu aurretik kontrako espediente dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluan 6. apartatuan aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Arrasate, 2022ko otsailaren 9a.

Debagoieneko ESiko zuzendari-gerentea,
LUISA M.^a DIEZ AZURMENDI.